

# Joana Aurrekoetxea Arratibel

EZ EPAITU, BEHATU



## KOMUNIKAZIO EZ BORTITZEAN MURGILDUTA

Ikasketak Gasteizen eta Madrilen burutu zituena Joana Aurrekoetxea. Hezkuntza ez-formalari berebiziko garrantzia emanez, besteak beste herri mugimenduetan, feminismoan eta borroka sozialetan parte hartu eta militatu eta gero, egun hezkuntzan aritzeko gai sentitzen da. Komunikazio Ez Bortitzaren munduan murgildu izanak barrenak irauli zizkion. Badaki zergatik eta zertarako den irakasle, eta dioenez, hori argi ukateak ematen dio funtsa egiten duenari. Publikoki agertzea ez du sobera maite, eta Bilgune Feministako liberazioa onartu zuenean bere baldintzeta-bat irrati edo telebista elkarrizketarik ez egitea izan zela aitortu digu. Gure gomita onartu du ordea, eta oso eskertuak gaude.

# “Enpatian trebatzen joan ahala, besteei laguntzeak dakarren plazera esperimentatzen joaten gara”

Bilgune Feministako kide beteranoa da Joana Aurrekoetxea Arratibel (1987, Donostia). Irakaslea da egun, eta hari horretatik tiraka, Donamartiriko Arberoa ikastolan abiatutako ibilbidea kontatu digu. Bertan egin zuen topo lehen aldiz Komunikazio Ez Bortitzarekin (KEB). Hurrekin ez ezik, helduon artean ere molde berean komunikatzeko gomendioa luzatzen digu: enpatiaz, epaitu gabe, norbere baitatik. Asko baitago jokoan.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

### Nola definituko zenuke komunikazio bortitza?

Enpatikoa ez den komunikazioa, edo komunikazio eza, azken finean. Des-konektatua dagoena, bai norberarengandik baina baita ingurukoengandik ere. Esango nuke lengoaiatik harago, egoeraren gainean egiten den interpretazioak eteten duela komunikazioa. Gure beharrekin konektatuak ez gaudenean, gerta daiteke aurrera eramaten ditugun ekintzak ez izatea egokiak faltan dugun behar hori asetzeari begira, eta ondorioz sentimendu desatseginak bizitzea. Hori gertatzen da, esaterako, beste norbaiten beharrak gurean gainera jartzen ditugunean: demagun leher eginda gaudela eta gure ondokoak deskantsatu dezan gu arduratzen gara eta etxeko lan guztiak egiteaz; ez elkartasun keinu bezala, baizik eta gogo txarrez. Edo gerta daiteke ere, gure behar bat asetzeko aurrera eramandako estrategiak kalteak eragitea beste norbaiti, modu tragikoan. Bururatzen zait, eskola-testuinguruan adibidez, irakasleok kontrolaren izenean egin ditzakegun ekintza batzuk arriskutsuak edo kaltega-

rriak izan daitezkeela haurrentzat. Esaterako, gehiegizko arauak haurren beharrak ezin asetzea ekar dezaketelako; autonomia, mugimendu, esplorazio edo esperimendazio beharra, besteak beste.

### Eta nolako komunikazioa da bortitzkeriarik gabekoa?

Norbera bere eta hurkoaren alde gizatiarrarekin bat eginik dagoenean emango litzateke, sinpleki. Teorikoki ez dirudi konplikatua, ezta? Bada, teoria praktikara eramatea ez da dirudien bezain erraza. Arberoa ikastolan, Komunikazio Ez Bortitzean “lepoluzeen hizkuntza” edo “bizitzaren aldeko hizkuntza” deitzen zaiona ikastera bidean, emozioen eta sentimenduen gaia asko lantzen da. Eguneroko une ezberdinetan arreta eskaintzen zaio norbere eguraldiari, haurrek beren baitan arreta jartzen ikas dezaten. Sentimenduak abisu edo alarma gisakoak baitira. Ikasten da, baita ere, lepaluzeen belarriez entzuten otso-hizkuntza. Alegia, epai bat pertsonalki hartu ordez, atzean dagoen mezua entzuten. Epai entzutean, beste pertsonaren barneko



otsoa irudikatzen dugu hizketan, baina badakigu funtsean bere behar bat asetzen saiatzen ari dela, eta hori zein izan daitekeen asmatzen saiatzen gara: desesperatuta senti daiteke, kooperazio beharra izan dezake sakonean, edo enpatia beharra...

Arberoan, horrez gain, biltzarrak egiten dira, astean zehar bizi izandako gatazkak KEB prozesuaren arabera ebazteko.

### **Ohartzen al dira haurrak edota ikasleak komunikazio bortitzaz?**

Noski. Eta pentsatzen dut zenbat eta kontaktu txikiagoa izan bortizkeriarekin, orduan eta gehiago ohartuko direla. Niri ondokoa gertatzen zitzaidan Arberoan: haur batek patioan liskar bat izan, eta parean bi irakasle suertatzea, bat epaitzen zuena, ni neu alegia, eta bestea enpatikoa zena. Bada, bigarrenarengana jotzen zuten, instintiboki agian, uler-tua eta entzuna izatea bilatzen bazuten. Izan ere, nik nerabilen eredia tarteko, bi aldeetako baten alde posizionatzea bilatzen nuen inkontzienteki, gainera emozionalki inplikatzeko nintzen haien arteko aferan, eta azkenean barkamena eskatuz saiatzen nintzen ebazten gertae-rak. Eta hala egiten denean, haurren aur-

pegietan sarri ikusten da horrek ez diela bakerik ekartzen, ezta? Barkamenak edo musu batek ez baitu enpatiarekin loturarik. Esaterako, adibide tipiko bat ekarriz: haur batek beste bati eskuetatik objektu bat kentzen badio, eta zuk irakasle bezala negarrez dagoen haurrari bere objektua itzultzeko bigarrenari eskuetatik objektua erauzten badiozu, haur hau ere, lehenengoa bezala, amorratu eta nahigabetuko da. Aldiz, berarekin hitz egiten baduzu, eta negarrez den haurraren parean jarriz biak sintonian jartzen badituzu, seguraski objektua itzuliko dio, eta triste den haurra bere onera itzultzen dela ikusteak, sakonean zerbait goxoa bizi-eraziko dio besteari ere. Enpatian trebatzen joan ahala, besteei laguntzeak dakarren plazera esperimentatzen joaten gara, baita esker ona ere.

Hau helduon mundura eramaten badugu, antzerakoa da, nahiz eta seguraski trebakuntza handiagoa beharko dugun lengoia berria ikasteko, ordura artekoa deseraikitzeke. Garrantzitsua da gaia egunerokoan lantzea, poliki-poliki gure ekintzez jabetzen joan gaitezen.

### **Komunikazio ez bortitza izan daiteke jendarte parekide baten**

### **aldeko ekintza?**

Horixe baietz. Pentsa, alfabetatuko bagina norbere eta besteen beharren eza-gutzan, ez ginateteke gehiago ariko exijentzietan, erruduntasunean, epaietan... gure ongizatearen ardura ez genieke besteei egotziko, edo ez genuke besteen ardura gure gain hartuko, exijentzia bezala; izatekotan, nahi dugulako kolaboratuko genuke besteen ongizatean, gehiago plazeretik. Gure mugak errespetatuko genituzke, baita besteenak ere, eta zintzotasunez jardungo ginateteke "bai" esaten dugunean, eta "ez" esaten eta entzuten duguen, hala nahi ez dugunean ere. Honekin ez dut ideia individualista bat transmititu nahi; uste dut ongizatea ardura kolektiboa dela, eta horretarako egiturak errotik aldatzea ezinbestekoa da.

### **Bi aldiz pentsatu beharko genuke hitz egin aurretik?**

Tira, ez diet hitzei hainbesteko garrantzia ematen... espontaneitatea ere batzuetan garrantzitsua da niretzat. Esango nuke gehiago baloratzen dudala hitzen atzean den intentzioa eta jarrera. Dena den, ezin ukatu batzuetan hitzek duten pisua eta balioa ere. ●